

KANALAK

Gure enpresaren kanalei erreferentzia eginez, produktuak saldu ahal izateko kanal mixtoa erabiliko dugu.

Hasteko, guk gure produktua salduko dugu gure kabuz, webgunean sortuko dugun dendaren bitartez. Hau da, kanal propioa edukiko dugu. Denda horretan gure produktua guk salduko ditugu inorren elkarlana erabili gabe. Nahiz eta kudeaketa zailagoa izango den, irabaziak handiagoak izango dira, beste denda batzuen komisioa aurreztuko baitugu. On line irekiko dugun denda, helduei zuzendua egongo da, beraietzeko edo bere familiakide zaharrentzako eros ditzaten. Horrez gain, behin eskaera on line egitean, karroak aukeratutako helbidera bidaliko ditugu, 2-3 eguneko epean.

Bigarrenik, zeharkako kanala ere erabiliko dugu. Gure produktuak denda fisikoetan saltzeko garaian denda ezberdinak erabiliko ditugulako. Denda horien artean supermerkatuak (Eroski, Alcampo, Carrefour etab.), elektronika dendak (MediaMarkt, Fnac etab.) eta azkenik herriko denda lokalak daude. Modu honetan, erosleek produktua fisikoki ikusi eta erosi ahalko dute, adineko pertsonen teknologia berriekin izan ditzazketen arazoak ekidinez era berean.